

## Ongintzak Sandiusterrri haunditu egin nahi du, zerbitzua legera egokitzeke

■ Andoni Amonarraiz Ongintzako Lehendakariak proposatu du beste edifizio bat egitea Sandiusterrri ondoan  
■ Aurrekontua 3.000.000 euro ingurukoa izan liteke eta Ongintzaren helburua da Diputazioak % 75 jartzea.

ONGINTZA Patronatuak erabaki du Sandiusterrriko zaharren erresidentzia haunditzeari ekitea, zerbitzua legera egokitzeke. Gaur egunean Sandiusterrri ez ditu erabat betetzen zenbait zerbitzuek izan beharreko baldintzak eta moldaketa hori egitea da haunditzearen helburu nagusia.

Legeak agintzen du erresidentzietan ezin direla gela berean hiru pertsona egon, eta 4 habitaziotik batek pertsona bakarrarentzako izan behar duela. Sandiusterrri gaur eguneko instalazioekin ezin ditu baldintza horiek bete, plazak gutxitsu ezean behintzat.

Maiatzean Diputazioak eta Udalak lortutako akordioaren konpromiso bat zen erresidentzian jendearentzat tokirik ez gutxitzea. Baina, Sandiusterrri legera moldatzeko formula aurrera begira zehaztekoan gelditu ziren orduko arduradunak, Maximo Goikoetxea eta Imanol Beroitz.

Andoni Amonarraiz Ongintzako arduradun berriak Kronikari adierazi dio Foru Aldundiak 2004 urteko abendura arteko epea eman duela egin beharreko obrak eta moldaketak egiteko. "Hori egin ezean, plaza-kopurua murriztu egin beharko dugu eta gaur egunean dagoen eskaria kontuan izanda ezin dugu inondik ere orain baino plaza gutxiago izan ditzakeen egoitza batekin geratu" dio Amonarraizek.

Ongintza Patronatuko Lehendakari berriaren hitzetan, konponbidea edifizio berria egitea da, erresidentziaren ondoan bertan. Era berean, egoitza berria egiteak ekarri-



Andoni Amonarraizek Foru Aldundiarekin negoziatioak hasiko ditu Sandiusterrri haunditzeko.

ko luke jende gehiagorentzat lekua izatea.

### Diputazioari % 75 eskatu

Andoni Amonarraizek Kronikari azaldu dionez, Patronatuaren planteamendua da Foru Aldundiak bere gain hartzea kostuaren % 75, eta Udalak beste % 25. Sandiusterrri Diputazioaren eta Udalaren kompetentzia diren zerbitzuak daude. Helduen % 75

dira Diputazioaren ardura-pear eta % 25 Udalarenean, eta hortik dator Patronatuak planteatu duen finantziario proportzioa.

Amonarraizek adierazi du berehala hasiko dela Diputazioarekin negoziatzen.

### "Miresmena merezi dute"

Azken asteotan, Patronatuko Lehendakari berria barrutik ezagutzen aritu da datozen


urteetan zuzenduko duen ardura eta honako hau esan du: "Ezusteke pozgarria izan da nerretzat Patronatua lanean ari direnek -egoitzan zein beste zerbitzu batzuetan- profesional eta pertsona bezala duten kalitatea ikustea. Eguneroko lanean erakusten dute beren bokazioa besteei zerbitzua ematea dela eta horregatik guztion miresmena merezi dute". □

## ERREMONTEA

### Ezkurra eta Zeberio II final bila gaur Galarretan

CASINO Kursaal buruz buruko Torneoko partidu erabakigarria jokatuko da gaur Galarretan. Koteto Ezkurak eta Patxi Zeberio finalera zein sartu jokatuko dute, semifinaletako ligilako azken partiduan. Ezkurra txapelduna aterako da faborito eta itxuraz behintzat Zeberio txapeldunordeak baino xamurragoa dauka. Doneztebetarrak nahikoa du 24 tanto egitea, Eizagirrenen kontrako finala jokatzeke. Partidua, 17:00-etan hasiko da.

Jaialdia osatuko duten beste hiru partiduak hauek dira, 16:00-etan hasita: Juaristi-Urrutia/ Uterga-Badiola, Altuna II-Eizagirre/ Altuna I-Lizaso, eta Sarasua-Urko/ Iribarren-J.Etxeberria. □



Txapelduna eta txapeldunordea elkarren kontra gaur. (Arg. Gotzon Aranburu-Argaki Press)

**TIEN 21**  
Especialistas en Electrodomestios

**CANAL+**

**DIGITAL+**

**Telemar - Itxastele**  
Elkano 13 - Tel.: 943 55 33 99  
Nagusia 7 - Tel.: 943 33 26 00

**Telemar ANTENAK**  
TB ANTENA PARABOLIKOEN INSTALAZIOA  
INDIBIDUALAK ETA KOLEKTIBOAK  
TELEDISTRIBUZIOA  
KONTSERBAZIO eta MANTENIMENTUA

Telefonia fijoja eta mugikorra

Telefónica  
**MoviStar**

www.kronika.net

**kronika**  
Interneten helbide berrian

PROKOLOR ZENTRUA

**PL** Landaribar, s.l.

► Pintatzeko ekipoak  
► Industri eta dekoraziorako pinturak  
► Pintatutako paperak

Kardaberaz 45 - Telf.: 943 55 21 31 - Hernani

**Ford**

**Antziola-Motor**  
Salmenta eta taller zerbitzua

**Ford Mondeo**

3 aukera ezberdin, gusto ezberdinentzat:

- 4 ateko elegantzia
- 5 ateko deportiboa
- Wagon familiarra

Etorri, ikusi eta aukeratu.

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72  
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

## SAN JOAN TXIKI JAIK PORTUN



Atzo eguerdian festei hasiera emateko txupinazoa botatzen.

## Pailazoak, asto karrera, txirrindulariak eta Izotz-en musika gaur, Portun

- Gaur arratsaldeko 18:00etan egingo da asto lasterketa, 52garrena aurtengoa
- Atzo hasi ziren Portuko festak txupinazoa, buruhaundi eta ume jolasekin.

GAUR bigarren festa eguna dute Portu auzoan. Atzo eguerdian hasi ziren festak txupinazoa botata, eta Umeen Eguna zenez, jolas aukera ederra izan zuten gaztetxoek.

### Gaur goizaldetik martxan

Gaur goiz-goizetik beteta dator Portuko San Juan Txiki jaietako programa. Goizean petardo eta suzirikin esnatuko dute auzoa, eta ondoren batxuri zopa gosaltzeko aukera izango dute animatzen direnek. Gaztetxoentzako gaur ere badaude ekintzak: haur jokoak, pailazoak, eta

tailerrak. Arratsaldeko 16:00etan mus txapelketa izango da Shangay Tabernan eta 18:00etan asto lasterketa. Ondoren txirrindularitza proba: erlojupeko igoera subestazio elektrikora. 20:30 etan Zinta Lasterketa. Gauean 'Izotz' taldeak animatuko du auzoa.

### 8 asto, lasterketarako

Gaurkoa 52garren asto lasterketa izango da, eta 8 asto aterako dira, bakoitza bere jinetarekin. Asto gainekoak beti bezala mozorrotuta aterako dira, lasterketak grazi piska bat izan dezan. □

## EGITARAUA

**08:00:** Egunsentia 70 CLBko kalibreko bomba eta suzirikin jaurtiketa.  
**08:30** Batxuri Zopa goiztiarrentzat  
**11:00** Haur Jokoak.  
**12:00** Patxin eta Potxin pailazoak.  
**16:00** Mus Txapelketa Shangay-n  
**16:00** etatik aurrera umeentzako tailerrak: gatza jokua, kortxoekin esku lanak, aurpegi pintaketa, eta abar.  
**18:00** LII. Asto Lasterketa  
**Ondoren** XI. Erloju kontrako Igoera Subestazio Elektrikora.  
**20:30** Zinta Lasterketa  
**00:00** Dantzaldia 'Izotz' taldearekin.

## Ereñotzuko Ozenki abesbatzak astearte honetan hasiko ditu entsaioak

- Kantu entsaioak iluntzeko 21:00etan dira, Karabelen, Doinu-Zale musika eskolan
- Koruak dio atek zabalik daudela eta jende berria gonbidatu du taldera.

UDARAKO geldialdia eta gero, Ereñotzuko Ozenki abesbatzak berriz ere asteartean ekingo die entsaioei. Oraingoz, astean behin bilduko dira, baina, aurrerantzean bi entsaio egingo dituzte, orain arte bezala. Koruak kanturako zaletasuna duen jende berriari ere atek zabaldu dizkio eta astearteko entsaiora gonbidatu ditu.

Aurtengoa urte berezia da Ozenki abesbatzarentzat, 10 urte bete baititu Ereñotzuko koruak. Hori dela eta, zenbait ekitaldi iragarri dituzte. □



Ereñotzuko Ozenki abesbatzak 10 urte bete ditu aurten.



Datorren astean martxan egongo dira komunak.

## Komun publikoak jarriko dituzte kiroldegiko frontoi sarreran

- Datorren astean zabalduko ditu Udalak ■ Tilosetan dauden komunen antzekoak dira.

KIROLDEGIKO frontoiaren sarrera ondoan komun publikoak egiten ari da Udaletxea eta datorren asterako zabalik izango dira. Komun berri horiek, Tilosetan dauden oso antzekoak dira eta elbarrientzako zerbitzua ere badu.

Uztailean hasi ziren komun horiek egiten eta obrak udaletxeko brigadak egin ditu. Inguru horretan jende asko ibiltzen da, bai pasiatzen eta

baita feria egunetan ere, eta horri erantzuteko erabaki zuten Udalak hor komun publikoak jartzea. Gainera, Kiroldegia ondoan dagoenez bertako instalazioak aprobetxatu dituzte.

Lehenagotik ere badaude komunak inguru horretan, (kolorez pintatuta dauden komun horiek), baina, hondatuta daude eta kendu egingo dituzte. □

## ■ XAKEA

### Xake ikastaroa umeentzat

- Irailaren 8an hasiko da ■ Izen ematea kiroldegian.

XAKE Elkartek 14 urtez azpiko umeentzat xake ikastaroa antolatu du datorren hila-beterako. Ikastaroa 20 ordukoa da eta irailaren 8an hasiko da. Astean hiru klase emango dira, astelehen, aste-

azken eta ostiralean, 17:30etatik 19:30etara.

Izena ematea kiroldegiko bulegoan bertan egin behar da eta gehienez 20 lagunentzat dago lekua. Inskripzioa 5 euro da. □

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093  
 ▶ Udaltzaingoa: 943 333288  
 ▶ DYA: 943 464622  
 ▶ Autobusak: 943 556662  
 ▶ Anbulatorioa: 943 006666  
 ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

### ☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793  
 ▶ Gauez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793

## IRAGARKI MERKEAK

Gela bat alokatzen da, bulegoko lanak, klase partikularrak edota masajeak emateko. Zentroan. Interesatuak deitu: ☎: 943 55 29 46 - 943 55 46 97

Pertsona batentzako, pisu baten alokairu merke baten bila nabil. ☎: 649 07 53 59. Apartamentu berri bat (estrenatzeko) alokagai Kale Nagusian. ☎: 699 49 22 35.



## Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

### GAUR 16:00 ETATIK AURRERA

#### ERREMONTA JAIALDIA:

- 1: Juaristi - Urrutia / Uterga - Badiola
- 2: "Casino Kursal" finalaurrekoa: Ezkurra - Zeberio II
- 3: Altuna II - Eizagirre / Altuna I - Lizaso
- 4: Sarasua - Urko / Iribarren - J. Etxeberria